

Ekainaren 13, 14 eta 15ean izango da selektibitatea

■ Hernaniko Institututik 24 joango dira ekainean ■ Dena aprobatu ez eta ekaineko errekerperazioak dituztenek uztailean izango dute beren aukera.



Hernani Institututuko klase bat kurtsuaren bukaerara iritsita.

MAIATZEAN guztia aprobatu duten ikasleak hasi dira selektibitatea prestatzen. Hernani Institutuan klaseek jarraitzen dute oraindik: gainditu dutenak selektibitatea eta ez dutenak errekerperaketak prestatzeko.

LAUA GUTXIENKO Azken notarako %60 batxilergoko notak balio du eta % 40 selektibitatekoak. Selektibitatean 4tik gora atera ezker gaitu liteke, baldin eta ba-

txilergokoarekin osatuta 5 baino gehiago ematen badu. Azken nota honek balioko die gero ikasleei karrera bat ala bestea aukeratu ahal izateko.

GEHIENEK APROBATU Selektibitateko azterketa egiten duten ia guztiek gaitzen dute. Ikasleek berak esana "batxilergoa gaitzea zaila da selektibitateko azterketa gaitzea baino".

Aurreko urteetako azterketak

egiten dituzte klasean eta "nahiko errazak" iritzi diote ikasleek.

AUKERA ASKO

Garai batean selektibitatea aprobaten ez zuenak aukera gutxi zuen ikasten jarraitzeko. Gaur egun, ordea, goi mailako heziketa zikloak daude. Hori dela-eta ikasle asko da batxilergoa aprobata ere selektibitatean presentatzen ez dena; edo aprobata ere goi mailako zikloak egiten dituenak. □

FMLNko Jaime Baldesek El Salvadorri buruzko bi hitzaldi emango ditu bihar

■ Lehen hitzaldia udalean arratsaldeko 18:00etan; bigarrena Biterin arratsaldeko 19:30etan ■ Hirugarren Mundua eta Bakea ONGak eta Udalak antolatu dute.

UDALAK Hirugarren Mundua eta Bakea ONGari diruz lagundutako proiektu baten bueltan, Jaime Baldes FMLNko (*Frente Farabundo Martí para la Liberación Nacional*) burua etorri da Hernanira.

Lehenengo hitzaldia udalean emango du: irekia den arren, inguruko herrietako zinegotzi zuzendua izango da. El Salvadorreko herrietako esperientzia eta Euskal Herriko eta hango udaletxeen arteko harreman inguruan hitzegingo dute.

Bigarren hitzaldia herritarrei zuzendua da: bake akordioa sinatu zeneko zortzigarren urtean

El Salvadorreko egoera politikoaren balantzea egin eta FMLNaren asmoak azalduko ditu.

LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera 5.000 pta
 25.000 pta
 pta

HERNANIK
kronika

Izena _____ Abizenak _____

N.A.N / N.I.F _____ Helbidea _____

P. kodea _____ Herria _____ Herrialdea _____ Tel. _____

Banku edo aurrezki kutxa _____ Titularra _____

Titularren helbidea _____

Entitatea Sukurtsala Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2

KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

BONOA UZTEKO: Kronika, Dobera, Pana, Iruretagoiena, Konde eta Zinko Enean. Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-mailez (kronika@topagunea.com) egin dezakezu.

Bai, ezta?

MENDIRIZ MENDI

Saioara eta kobazulora datorren astean

■ Ekainaren 10ean Mendiriz Mendik gaztetxoentzat irteera antolatu du Saioara (1.418 m). Izena emateko betiko ordu eta lekuan. Bestalde, egun berean espeleologia espedizioa dute. Horretarako ekainaren 8an, dijozenekin bilera egingo dute.

Senideaken martxa bihar iritxiko da Angel Pikabea dagoen kartzelara, Osnyra

■ Senideak Elkartea Frantziako kartzeletan barrena martxa egiten ari da, presoan egoera salatzeko. Bihar Osnyra iritxiko dira, Angel Pikabea hernaniarra dagoen kartzelara. Osny Hernanitik 890 km-ra dago.

HERNANI INSTITUTUA

Ikastetxea ezagutzeko aukera asteazkenean

■ Hernani Institutuak *Ateak Zabalik* izango ditu datorren asteazkenean ikastetxea ezagutu nahi duten guztientzat. Instalazioak erakutsi eta bertan egiten duten lanaren berri emango dute arduradunek. Karmelo Labakan ziklo industrialak (Mekanika eta Elektrizitate-Elektronika) eta Agustin Iturriagan zerbitzuzkoak (Ostalaritza, Turismoa eta Gizarte Kultur Animazioa). Interesatuak bertara (Institutu edo EPOra) azaldu, etzi, arratsaldeko 18:30etarako.

ODOL EMAILEAK

Bihar da odola emateko eguna

■ Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara Anbulatorioan.



«Jose Langile Deuna» Salesiar Ikastetxea
Escuelas salesianas «San Jos Obrero»
LH-ko Goi Mailako Institutua

Ergoien auzoa, 6
20130 Urnieta

Tel.: 943 55 17 89
Fax: 943 33 10 59

BATXILERGOAK - LH-ko ZIKLOAK

2001-2002 IKASTURTEA

BATXILERGOAK:
TEKNOLOGIA - NATUR eta OSASUN ZIENTZIAK - GIZA ZIENTZITAK

ERDI eta GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- Makineria eta linea-eroanbideen instalaz. eta mantenimendu elektromekanikoa (Erdi M.)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak. (Erdi Maila)
- Argitalpen diseinua eta produkzioa (Goi Maila).
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (Goi Maila).
- Grafikagintzaren produkzioa (Goi Maila).
- Instalazio elektroteknikoak (Goi Maila).



GURE ESKAINTZA:

- Ikastetxe hitzartua
- D eredua: Batxilergoa
- Helebiduna: Lanbide H.
- Jangela
- Baliabide eguneratuak
- Goizeko ordutegia
- Kultur, kirol eta musika ekintzak.

- ✓ PRAKTIKAK ENPRESETAN (atzerrian ere bai)
- ✓ LANGAIren Zentru laguntzailea
- ✓ GRAFIKAGINTZAN babespeko ikastetxea
- ✓ INEMeko zentru laguntzaile homologatua
- ✓ AUTOCAD eta CADDY baimendutako zentrua

Ikastetxea ikusteko aukera: Ekainaren 6an - arratsaldeko 7etan

GOIKO ARDOAK



EL COTO

Joseba Gorostegi Goikoetxea
Tel 943 55 19 15 - Mobilka 657 77 71

Datorren asteburuan egingo dira Osiñagako festak

- Programa Interneten aurkitu daiteke: www.geocities.com/osinagakojaiak/ helbidean
- Asteburu osoan, auzoko argazki zaharren erakusketa egongo da, Harriatsun.



Erakusketa ikusi daiteken argazki bat. (Internetetik hartua).

OSIÑAGA auzoko Jai batzordeak dena prestatu du, auzoko jaiak ospatzeko. Iadanik burutu da jaietako lehenengo ekitaldia: joan zen larunbatean mus txapelketaren kanporaketak jokatu bait ziren.

LARUNBATEAN HASI

Hala ere festen ekitaldi nagusiak asteburu honetan izango dira. Larunbat goizean hasiko dira ekitaldiak. 10:00etan haurrentzat mountain bike ibilaldia izango da, hamaiketako eta guzti. Ondoren 12:00etan txupinazoa. Arratsaldean izango dira ekitaldi nagusiak, Mus txapelketaren finala, segalariak

(auzoko txapeldunak Telleria bertsolaria eta beste lagun baten aurka), pilota partiduak, bertso saioa, Sagardo eta bakailo dastaketa eta bukatzeko Laiotzekin dantzaldia.

IGANDEAN BAZKARIA

Igandean 11:00etan Rafa eta Txuriari lore eskaintza egingo diote. Eguerdiko 12:00etan Pilotako finala, eta ondoren Peñagarikano eta Telleria ariko dira bertsoan. Festak sortutako neketik errekuperatzeko, Herri bazkaria izango da Harriatsun. *Auzo kirolekin* eta ilunabarreko dantzaldiarekin amaituko dira jaiak. □

EGITARAUA

EKAINAK 9 LARUNBATA

- 10:00 Mountain Bike haurrentzat.
- 12:00 Txupinazoa eta haur jolasak.
- 16:00 Mus Txapelketaren finala.
- 17:30 Segalariak.
- Ondoren. Pilota partiduaren finalaurrekoak.
- Ondoren. Hernaniko bertsoeskolako Bertso saioa.
- 20:00 Sagardo eta bakailo dastaketa.
- 23:00 Dantzaldia LAIOTZekin.

EKAINAK 10 IGANDEA

- 11:00 Rafa eta Txuriari lore eskaintza.
- 12:00 Pilotako finala.
- 13:00 Angel Mari Peñagarikano eta Millan Telleriarekin bertso saioa.
- 14:00 Bazkari herrikoa Harriatsun.
- 17:00 Auzo kirolekin: trontza, txinga, soka-tira, zaku karrera, ...
- 20:00 Dantzaldia Xapre taldearekin.

Eguraldia lagun, giro ederrean bukatu ziren Floridako festak

- Umeen tanborrada izan zen jenderik gehien bildu zuena.



Umeak tanborra jotzen Floridako frontoian, atzo eguerdian.

ATZOKO egunarekin esan diote agur Floridan aurtengo Mendekosteei. Goizean zehar lehiaketak eta partiduak izan ziren. Bakailo kaxuela onena

Emilio Fernandezek jarri zuen, patata tortila goxoena Monse Martinek eta lorerik ederrenak (herenegun) Laura Granjerasek aurkeztu zituen. Festetako Pala

txapeldun berriz Jongar eta Nani gelditu ziren finala 35-20 irabazita. Hala ere, aurtengo arrakastarik haundiena umeen tanborradak izan du. □

HITZ BITAN



Ignacio Bilbao eta Julio Gonzalez lortutako sariekin.

✓ TUTEA

Ignacio Bilbao eta Julio Gonzalezek irabazi dute Elur-Txoriko tute txapelketa. Bigarren Daniel Carrera eta Carlos Balda gelditu ziren. Elur-Txoriko zuzendaritza batzordeak Onddi taberna, Dorronsoro okindegia, Rioja taberna, Goros Anaiak, Portalondo, Diregi, Bachiller ardoak, Onbisa eta Izaskun Kirolakeri eskerrak eman nahi dizkie, Tute txapelketarako eman duten laguntzarengatik.

✓ MUSA

Xalapartako mus txapelketa aste honetan erabakiko da. Asteartean finalerdiak jokatuko dira. Partidak izango dira: Joxan-Agustin / J.J. Zelaieta-Joakin eta Felix-Nemesio / Julio-Alzelay. Irabazleek finala ostegunean jokatuko dute.

✓ IDAZLANAK

Ainara Ormazabal saritua Coca Cola fundazioak antolatutako idazlan lehiaketan. 868 ikasle hartu dute parte Gipuzkoan; Ainara 3 aurrenekoetan gelditu da. Ainarak Inmaculadan ikasten du eta irakasle, guraso eta ikasleek zorionak bidali dizkiote.

✓ LUDOTEKA

Marigorri ludotekak 10 umerentzako lekua du oraindik. Interesatuek ludotekara deitu. Telefonoa: 943.55.22.00.

✓ AEK

'Tribiala' prestatu dute Hernaniri buruzko galderekin. Klase bakoitzak 15na galdera prestatuta egin dute tribiala. Ikasleek aste osoa izan dute galderak irakurri eta Hernanin barrena erantzunak bilatu ahal izateko. Gaur ere ibiliko dira Adarragako ojaldearen osagaiak jakin nahian, Hernaniko punturik altuena non dagoen galdezka, herriko kale-rik luzeena zein den asmatu ezinda... Goizeko taldeek lehengo astean jokatu zuten eta *Juanbauren* taldeak irabazi zuen. Arratsaldekoek gaur jokatuko dute. □



Hernaniri buruzko tribial erraldoia dadoa nork botako zain.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:30etan: Monika Lebizkiren bisita. 11:40etan: Maria Jesus Sendagile naturistarekin kolesterolari buruz. 12:00etan: Luis Mari Zalduarekin Hernaniko bazterrak.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
- ▶ Gaeuz: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395
- ✚ **ASTEARTEA**
- ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri auzoa ☎ 943 557738

- ▶ Gaeuz: OA Usurbil, Poligono 1, 1 ☎ 943 376076

✚ ASTEAZKENA

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gaeuz: Tanco Urnieta, San Juan 36 ☎ 943 550942